

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, “Komunikabideetan sexu bien presentzia orekatua bermatzeko” hurrengo **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du, **osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin**:

ZIOA

4/2005 legeak, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, bere 26. artikuluan 2. atalean esaten denez, “Gizarte-komunikabideek, beren programazioak egiteko orduan, ... eta emakumeen parte-hartze aktiboa eta sexu bien presentzia orekatua eta irudi anitza bermatu behar dute... Bestalde, emakumeek sustatutako edo emakumeek zuzendutako jarduera politiko, sozial eta kulturalaren zabalkundea bermatu behar dute, gizonetik berdintasunean, eta orobat emakumeak ahalduntzeko lagungarri diren jarduerak ere”.

Titulartasun publikoko komunikabideen kasuari lotuta, aipagarria da, 2010. urtean zehar Radio Euskadiko saioetan aritu ziren 41 “ohiko kolaboratzaileetatik” 10 emakumeak eta 31 gizonezkoak izan ziren; Euskadi Irratiaren kasuan, berriz, 37 ohiko kolaboratzaileetatik 30 gizonak eta 7 emakumeak izan ziren.

Telebista publikoaren kasuan ere, antzeko egoeraren aurrean gaude. Adibide batzuk jartzearen, ETB1eko Azpimarra telebista saioan 16 gizonezko eta 5 emakumek parte hartu izan zuten 2010eko saioetan kolaboratzaile gisa; ETB2ko Egun on Euskadi saioan, berriz, 12 gizonezko eta 4 emakume aritu ziren kolaboratzaile gisa.

Gauzak horrela, eta titulartasun publikoko komunikabideek eskaintzen dituzten saioek, orokorrean, ez dutenez betetzen Berdintasun Legeak dioena bere 26. artikuluan, osoko bilkuran eztabaidatzeko hurrengo legez besteko proposamena aurkeztu du:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, komunikabideetan emakumeen parte-hartze aktiboa eta sexu bien presentzia orekatua berma dezala, 4/2005 Berdintasun Legearen 26. artikuluan esaten denari jarraituz, “emakumeek sustatutako edo emakumeek zuzendutako jarduera politiko, sozial eta kulturalen zabalkundea bermatzeko gizonetikiko berdintasunean”, bai eta iritzi emaileak aukeratzeko orduan ere.

Era berean, EiTBk sexu bien presentzia orekatua bermatzeko plan zehatza ekar dezala eskatzen dio, sesio aldia amaitu baino lehen.

Gasteiz, 2011ko martxoaren 8an

Aintzane Ezenarro Egurbide

Aralar taldeko bozeramailea